

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

375 zb.
www.getxo.eus

>> 2023ko Otsaila

Nabarmen^{tzekoak}

- > Lau proiektu artistiko eta sortzaile hautatu dira 2022ko "Wanted" programan
- > "Prest!", gazteentzako orientazio eta aholkularitza juridikoko doako zerbitzu berria
- > Escape Room ibiltaria euskararen erabilera ikusarazteko eta sustatzeko



Escape Room ibiltaria euskararen erabilera ikusarazteko eta sustatzeko

Otsailaren 21ean Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, udal Gazteria Zerbitzuak jarduera bat programatu du udalerriko gaztelekuetan, **Euskape**: otsailaren 18an, larunbatean, Romoko GureGunen, eta hilaren 19an, igandean, Algortako GauEgunen. Hain zuzen ere, Euskararen Ihes Gela da, jolasaren bidez euskararen erabilerean garrantziaz hezi eta kontzientziatu nahi duen Escape Room ibiltaria. Parte-hartzaileek gehienez 8 laguneko taldeak osatuko dituzte eta 60 minutu izango dituzte proba guztiak gainditzeko eta azken giltzarrapoa irekitzea lortzeko. Jarduera 17:30ean hasiko da eta izena eman behar da aukeraturako gaztelekuetan:

- Algorta: aibibizia.hbetolaza@getxo.eus, telefonoa: 688 84 03 56.
- Romo: aibibizia.lgonzal@getxo.eus, telefonoa: 635 70 65 26.

BEKAK SARIAK

* **'Bogliasco Fundazioa' ikerketa artistiko eta kulturalerako beka**: egoitza artistikoak Ligurian. Hilabeteko 50 beka Arte Bisualetarako, Arkeologiarako, Arkitekturarako, Paisaia-arkitekturarako, Dantzarako, Ikasketa Klasikoetarako, Film/Bideorako, Filosofiarako, Historiarako, Literaturarako, Musikarako eta Antzerkirako. Ez zaizkie ikasleei ematen, baizik eta beren lan-diziplinan lorpen esanguratsuak erakutsi ditzaketen pertsoneri, beren adinarean eta esperientziaren proportzioan, nazioarteko komunitate eleaniztun eta artista eta akademikoen hurbileko batean lanean gustura sentitzen direnei. Izena emateko epea: apirilaren 4ra arte. Informazio gehiago: <https://labur.eus/XWAKy>

* **Gurot galdera lehiaketa**. Datorren otsailaren 13ra arte egongo da zabalik Gurot euskarazko galderen lehiaketan parte hartzeko epea. Aplikazioan (www.gurot.eus), Alkarbide udaletako (Getxokoa, besteak beste) eta Bizkaiko mankomunitateetako euskara zerbitzuak koordinatzeko mahaiak abian jarritako aplikazioan, 12 eta 17 urte bitarteko hiru gaztek osatutako taldeek hartu ahal izango dute parte, otsailaren 17tik martxoaren 15era. Trivial erako jolasa da, gizarte, natura, hizkuntza, arte, kultura, zientzia, kirol eta aisialdiari buruzko galderekin. Getxoko bi talde hoberenek tablet bana jasoko dute baita martxoaren 24an Bilboko San Mameseko Geuria aretoan jokatu den finalean parte hartzeko aukera ere izango dute.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 2, osteguna: ASANBLADA: MARTXOKO PROGRAMAZIOA
Hilak 4, larunbata: IRTEERA: ITSAS MUSEOA
Hilak 7, asteartea: TAILERRA: ESKUTITZAK
Hilak 08, 15 eta 22, asteazkenak: TAILERRA: ANTZERKIA
Hilak 12, igandea: SUKALDARITZA: PATATA FRUITUAK
Hilak 16, osteguna: EKINTZA: MARRAZKIAK
Hilak 18, larunbata: TAILERRA: ESCAPE ROOM
Hilak 24, ostirala: ESKULANA: AMETS-HARRAPAKARIA
Hilak 25, larunbata: IRTEERA: BILBO BIRTUALA

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 2, osteguna: ASANBLADA: MARTXOKO PROGRAMAZIOA
Hilak 3, ostirala: MASTER CHEF: GALLETAK
Hilak 5, igandea: TORNEOA: PING-PONG
Hilak 8, asteazkena: JOLASA: MAHAI-JOKOAK
Hilak 10, ostirala: MASTER CHEF: BONBOIAK
Hilak 14, asteartea: ESKULANA: SAN VALENTIN
Hilak 19, igandea: IRTEERA: ESCAPE ROOM
Hilak 24, ostirala: ESKULANA: INAUTERIAK
Hilak 25, larunbata: IRTEERA: JAPAN WEEKEND

28.000 eurotik gorako ekimenak babestuko dira Lau proiektu artistiko eta sortzaile hautatu dira 2022ko "Wanted" programan

Udalak ezagutzera eman ditu gazteek sortutako ekimenei laguntzeko *Wanted* 2022 programaren deialdian hautatutako lau proiektuak. Programa hori, Udaleko Ekonomia Sustapenerako Arloak eta Gazteria Zerbitzuak batera sustatzen dute. Arte- eta sormen-arloko lau proposamen dira, eta, guztira, 28.377 euroko diru-laguntza jasoko dute.

Iñigo Urkitza Ekonomia Sustapenerako zinegotziak gazteei beren proiektuak martxan jartzean ematen zaien babesaren garrantzia azpimarratu du. "Nahiz eta kasu batzuetan ekintzailetza-proiektuak ez izan, horien garapenean eskuratzen diren trebetasunak oso baliagarriak izan daitezke aurrerago enpresa bat sortzea erabakitzen badute. Horregatik, Ekonomia Sustapeneraren Arlotik, ekimena eta ilusioa duten eta beren lana egiten duten gazteei lagundu nahi diegu, sustatzaileentzat ikaskuntza izateaz gain, udalerriko bizitza kulturala aberastuko duten proiektuak aurrera ateratzeko".

Bestalde, Gonzalo Ayo Gazteriako zinegotziak nabarmendu duenez, "laguntza horien helburua da jarduera eta ekoizpen sortzaileak sustatzea, gure gazteak lanbide-eremuan sar daitezen erraztea eta haien proiektuak sustatzea eta zabaltzea. Horrela, gazteen parte-hartzea eta pentsamendu kritikoa sustatu nahi ditugu, eta Getxon negozio-idea eta ledo bestelako proiektu berriak loratzen lagundu, herritar guztiak tokiko talentua izan dezaten".

"Prest!", gazteentzako orientazio eta aholkularitza juridikoko doako zerbitzu berria

Gazteria Zerbitzuak, 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako orientazio eta aholkularitza juridikoko zerbitzu berria jarriko du martxan hilabete honetan: *Prest!* izena hartzen duen zerbitzua da eta dohainik da. Zerbitzu honen helburua da udalerriko gazteei laguntza eskaintzea, beren egunerokoan sortu ahal zaizkien legezko zalantzak direla eta.

Batez ere, honako gai hauekin zerikusia duten oinarritzko gaiei erantzun zaitza:

- Etxebizitza (alokairu-kontratuak, fidantzak...)
- Lan-kontratua (kontratuak, kaleratzeak, kalte-ordainak, langileen eskubideak...)
- Fiskalitatea eta zergak (PFEZ, jarduera ekonomikoak, dohaintzak, oinarritzak...)
- Ekintzailetza (forma juridikoak, nola hasi zure jarduera, oinarritzko izapideak...)

Doako zerbitzua da, lehenago aipatu bezala, eta bertan erabiltzaileak orientatzen saiatuko dira eta egindako kontsultei erantzuteko tresnak ere eskainiko dira. Dena



Ekonomia Sustapenerako eta Gazteria zinegotziak, proiektuen sustatzaileetako batzuekin batera

Proiektuak

- **Flysch**. Martín del Busto Ruiz de Velascok bultzatua, Bizkaiko paisaia eta iragan industrialak aztertzen dituen erakusketa-proiektua da. Izenburuak erreferentzia egiten die euskal kostaldeko harri sedimentatu geruzei eta hitzaren jatorri germaniarrari berari: "Jariatzea edo irristatzea". 10.000 euroko diru-laguntza jasoko du.

- **Extraviados**. Alejandra Orbegozo Gomezaren film laburra da, eta bere jaioterria oporrak hartzerantz itzultzen den Marina gaztearen istorioa kontatzen du. Bere betiko lagunekin festa baterako prestatzen ari den bitartean, ezin du ekidin bertako orotzapek eta harreman sentimentalek hura inbaditzea. Film laburrak 6.996 euroko diru-laguntza jasoko du, eta Getxon estreinatuko da.

- **Kalarte** Miren Eva Careaga Cortacans eta Leizuri Hernández Álvarezren sustapen artistikoko proiektua da, eta bigarren bizitza bat eman nahi die Getxoko artisten bidez erabiltzen ez diren hiri-elementu batzuei. Helburua da elementu horiei balioa ematea eta gunen horietan egingo diren obrak herritarrei erakustea. 5.945 euro jasoko ditu egitasmo honek.

- **Motion Urban Dance-MUD** Iraia Gómez Arzak gazteak hiriko dantzazaleentzat egindako proiektua da, lehiatzeko, konektatzeko eta ikasteko aukerak emateko helburua duelarik. Pandemiaren lehiaketa bat egin zuten online eta 1.700 bistaratze baino gehiago izan zituen. Hurrengo lehiaketa presentziala izango da eta apirilaren 16an egingo da, Muxikebarrin. Emandako laguntza 5.436 eurokoa da.

den, zerbitzu horrek ez ditu eta ezin ditu ordezkatu, inola ere, sektoreko profesional espezializatuek emandako zerbitzuak; izan ere, egokitzat jotzen gero, haiengana jotzea gomendatuko da.

Zerbitzua erabat konfidentziala izango da. Bertara sartzeko,

posta elektronikoko bat bidali behar da prest@getxo.eus helbidera. Bidalitako mezuan honako datu hauek adierazi behar dira: harremanetarako datuak, kontsultaren deskribapen zehatza eta erantzuna jasotzeko kanala (emaila, bideokonferentzia, WhatsApp edo aurrez aurrekoa).

